



# KONTROLEKO DORREA

**Materiala:** Zapiak eta pista oztopatzeko gauzak (mahaiak, aulkiak...).

**Jokatzeko era:**

Bikote bat aukeratuko da, bata hegazkina eta bestea kontroleko dorrea izango dira.

Lur hartzeko tokia oztopoz inguratuta kokatuko dugu. Hegazkinak begiak estalita ditu eta kontroleko dorreak ahoz lagundu behar dio gidatzen, agindu errazak eta zehatzak emanaz, hegazkinak oztopoak saihesteko.

**Aldaera:**

Bikote bakar batek jolastu beharrean taldeko bikote guztiek jolas dezakete.

